



LEGAZPI
KLIMA
2030

LEGAZPI
2016 URTEAN



Legazpiko Udalak Klima Aldaketaren aurka eta garapen iraunkorraren alde lan egiten du.

ZER DA GARAPEN IRAUNKORRA: Gure seme-alaba eta biloben beharrak arriskuan ez jartzea. Horretarako gure natura zaindu behar dugu.

ZER DA ALDAKETA-KLIMATIKOA: Lurrazaleko temperatura igotzen ari da. Gizakiak egiten dituen gauzengatik ere berotzen da. Aldaketa horrek ondorioak izan ditzake; bero boladak, uholdeak, itsasoaren maila igotzea...

Legazpiko Udalak plan berri bat martxan jarriko du.

Plana martxan jarri baino lehen gaur egungo Legazpiko egoera aztertu du. Azterketa horretan pertsona askok parte hartu dute; politikariek, teknikariek, herritarrek, etab.

Politikari eta teknikariek aurkezpenak egin dira. Herritarrei galderak egin zaizkie hauen iritzia jasotzeko.

Honako gauzak aztertu dira eta ondorio hauetara iritsi dira:



01 LURRALDE ETA PLANTEAMENDUA

→ Legazpi oso zabala da eta lur zati handiengan mendiak daude.



→ Legazpiko hirigunean ez dago parke eta gunerik berde asko.



→ Ondo zaintzen ditugu gure eraikin eta bestelako baliabide garrantzitsuak.



→ Ez dago emakumezkoen izenik duen kalerik.





- Hondatuta dauden zoruetan, esaterako, Urtatza-zahar parkean, berreskuratze lanak egiten ari dira.



02 BIODIBERTSITATEA ETA PAISAIA

- Legazpiko luraren zati handi bat basoa da eta pinu asko daude.



- Hemengoak ez diren zenbait zuhaitz eta lore mota daude eta bertakoei kalte egiten diete.

- Arrain mota ezberdin gutxi ditugu Legazpin.

- Mehatxatutako 50 animalia espezie desberdin bizi dira.

- Aizkorri-Aratz parkea dugu eta naturarentzat garrantzitsuak diren beste gunek ere.



03 URA

- Legazpiko uraren kalitatea ona da.



- Ura ondo erabiltzen ikasteko programak egiten dira.



- Ibaien uraren kalitatea ere ona da, baina okerrera egin du.



→ Legazpiarrok gero eta ur gutxiago kontsumitzen dugu.



04 ENERGIA

→ Etxebizitzetako elektrizitate kontsumoa gutxitu egin da.



→ Energia gehiena industriarako eta ibilgailuentzako erabiltzen da.

→ Energia berriztagarriak gutxi erabiltzen dira.

ZER DIRA ENERGIA BERRIZTAGARRIAK?

Eguzkitik, haizetik edo lurretik, esaterako, ateratzen den energia da.



05 ALDAKETA-KLIMATIKOA

→ Azken 10 urteetan Legazpin isuritako berotegi efektuko gasak murriztu egin dira.



ZER DA BEROTEGI EFEKTU GASA?

Fabrikek, kotxeek, etabarrek isurtzen dituzten gasak.
Hauek lurra berotzen dute.





→ Legazpiko Udalak Klima Aldaketaren aurka borroka egiteko plan ezberdinak jarri ditu martxan.



→ Legazpiko arriskurik handiena muturreko gertaerak dira, hau da, euri jasak, bero boladak, etab.



06 OSASUNA

→ Duela 20 urte Legazpin pertsona gehiago bizi ziren.



→ Legazpin pertsona nagusi asko daude eta haur gutxi.

→ Legazpin bizi den jendearen ia erdia emakumezkoak dira eta beste erdia gizonezkoak.



→ Legazpi inguruko Ospital eta Farmazien eskaintza nahiko ona da.



→ Legazpin, Euskadiko beste herrieekin alderatuta, hutsik dauden etxebizitzak gehiago daude.

→ Etxebizitza asko zaharrak dira.



→ Legazpi kirol instalazio asko ditu eta Bikuña polikiroldegia da nagusia.



→ Kirol eskaintza handia da eta 15 kirol klub daude.

→ Kirol klubetan oraindik emakume gutxi parte hartzen dute.





07 MUGIKORTASUNA

→ Legazpiarrak oinez eta kotxez ibiltzen gara gehienetan.



→ Azken urteetan ez da auto istripurik edo oinezkoen harrapaketarik gertatu.

→ Oinezko, bizikleta eta autoen arteko elkarbizitza hobetu behar dugu; autoek abiadura moteldu behar dute, bizikletek oinezkoak errespetatu behar dituzte, eta oinezkoek, berriz, bidegorriak.

→ JUNETORRI zerbitzua asko erabiltzen da eta oso ondo baloratzen da.



→ Donostiara eta Gasteizera joateko tren gehiago eskatzen dituzte herritarrek.

→ Herritarrek ez dira ados jartzen ea egun dauden aparkalekuak nahikoak diren ala ez.



→ Bizikleta erabiltzeko bidegorri eta kale asko prestatu dira, baina auzoak ere egokitu behar dira.



→ Herri erdigunean lasai ibili daiteke oinez, baina auzoetan oraindik oztopo asko daude.

08 EKONOMIA

→ Geroz eta abelzain eta nekazari gutxiago dago.



→ Legazpiko enpresa asko beste herri batzuetara joan dira.



→ Geroz eta denda gutxiago daude Legazpin. Legazpiar asko inguruko herrietara joaten dira erosketara egitera.



→ Merkatalgune handietan geroz eta gehio erosten da.



→ Turista gutxi daude Legazpin.
Gauza gehio eskeini behar zaizkie turistei.



→ Pertsona gehienek lana dute.

→ Pertsona askok, Legazpin bizi diren arren, beste herri batean lan egiten dute.

→ Etorkizunari begira langileen prestakuntza hobetzea garrantzitsua da.

→ Legazpin, beste tokiekin alderatuta, etxetik kanpo lan egiten duten emakume gutxiago daude.



09

HONDAKINAK. ATMOSFERA. AKUSTIKA. LURZORU KUTSATUAK

→ Azken urteotan hondakin gutxiago sortu dugu.



→ Geroz eta jende gehiagok birziklatzen du.



→ Sasetak eta Udalak hondakin gutxiago sortzeko kanpainak dituzte;
poltsa berrerabilgarriak banatu, tupperren eta orgatxoaren erabilera bultzatu...

→ Ibilgailuek eta fabrikek usaina eta kea sortzen dute.



ZER DA ATMOSFERA? Inguruan ditugun gasak dira.





→ Airearen kalitatea hobetu da. Legazpiarrek fabrikek ke gehiegi eta usain txarra botatzen dutela uste dute.

→ Udala herriko toki desberdinetan dagoen zarata maila aztertzen ari da.



→ Kutsatuta dauden lurrak errekupeatzeko lanean ari da Legazpiko Udala.



→ Udala zorrotzagoa izan beha du fabrika, enpresa, eta bestelakoek arauak kunplitu ditzaten.



10 UDALAREN ANTOLAKETA

→ Udalak bere erabakietan ingurumena kontutan izaten du, baina oraindik gehiago egin dezake.



→ Udalak herritarrek parte hartzeko foro ezberdinak jarri ditu martxan.



→ Internet bitarteko foro bat ere sortu da, baina jendeak ez du erabiltzen.

→ Elkarte asko daude Legazpin eta Udalarekin lan egiten dute.



→ Legazpiko Udalak web orria dauka eta sare sozialak erabiltzen ditu. Herritarrek ez dituzte gehiegi erabiltzen.



→ Udalak kanpaina ezberdinak egiten ditu, adibidez, hondakinak, kontsumo arduratsua edo mugikortasunari buruzkoak.

→ Erreka eguna eta mugikortasun astea antolatzen ditu.



ZER DA TOKIKO AGENDA 21?

Herriko garapen iraunkorra bultzatzeko prozesua da.


→ Legazpiko Agenda 21ek sari asko jaso ditu.

→ Legazpiko Agenda 21ean lan egiten duen teknikari bat dago.



11 HEZKUNTZA, EUSKARA, KULTURA

→ Ikastetxe eta hezkuntza maila ona dago.



→ Geroz eta emakume gehiagok ikasten dute lanbide hezkuntzan.



→ Adin guztietako gazteei zuzendutako proiektu bereziak daude.

→ Emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko, BELDUR BARIK programa lantzen da.



→ Azoka gunean asko hitz egiten da euskaraz.



→ Gazteek gutxi hitz egiten dute euskaraz.

→ Auzoetan euskara gutxi erabiltzen da.

→ Herriaren erdigunea da euskara gehien hitz egiten den lekua.



→ Udalak zerbitzu guztiak euskaraz eskaintzen ditu.

→ Udal barneko lana ez da beti euskaraz egiten.

→ Udala lanean ari da bere euskararen erabilera hobetzeko.



→ Legazpi herri lasaia da.



→ Noizik eta behin lapurretak gertatzen dira etxe nahiz kaleetan.

→ Programazio kulturala herriko elkarteekin batera egiten da.



→ Etorrinak, beste herrietatik etorri diren pertsonak,
askotan ez dira elkartzen herriko jendearekin.

→ Kultur ekintza asko antolatzen dira.

